

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ALTZAGAKO UDALA

*Iragarkia*

Arauzko informazio publikorako epea inolako erreklamazio edo oharririk aurkeztu gabe igaro denez, behin betiko bihurtu da Udaltzatzen 2018ko azaroaren 27an «Altzagako herri baratza» funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren onarpenerako hartutako hasierako erabakia. Beraz, eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikulua dioenaren arabera, erregelamendu horren testu osoa argitaratzen da, zeina hitzez hitz dioen:

*Altzagako «Herri-Baratza»ren funtzionamenduari buruzko erregelamendua.*

ARRAZOIAK AZALTZEA

Altzagako Udalak baratza ekologikoen proiektua antolatzeko deialdia egin ondoren, 4 familia interesaturik agertu dira.

Interesaturik agertu diren pertsonekin batera, Udalak auzolan bidez, Apaiz-etxearen atzekaldean kokaturik dagoen lur saila, baratza ekologikoak kokatzeko prestatzea erabaki du.

Baratza antolatzeko lanak burutzerakoan, udalak beharrezko diren lur mugimendu lanak eta makinaria hornitzeaz arduratuko da.

Interesaturiko bizilagunek, eskulana aportatuko dute, zuhaitzak bota, lurra garbitu eta baratza sailak zehaztu.

Altzagako Udalak baratzen txikiak sustatzeko programa honen bidez, 4-5 baratza saila antolatuko ditu eta baratzen sail horien ustiatketan arituko direnek, familia-kontsumoari zuzendutako produktuak lortu ahal izateko izango da.

Udalaren konpromisoa datza programarako sarbidea erraztea interesdun guztientzat, lur sailak antolatzea, beharrezko hornikuntzak egitea eta lursailak eskuratzeko araudia erregulatzea.

Programa honekin lortu nahi ditugun helburu orokorrak, honako hauek dira:

1. Pertsonen osotasunerako topalekua izatea. (baloreen transmisioa) Bizitza osasuntsu baterako oinarriak eskaintzea (elikadura orekatua, norberak behar duena berak ekoizteko aukera) naturarekin harremanean batzuk besteetatik ikasi eta erakusteko aukera eta elkarbanatzeko aukerak eskaintzea aspaldian galduta ditugun hainbat ikaskuntza berreskuratuz.

2. Aisi aktiboa sustatzea.

3. Jarduera eskaintza zabaltzea Altzagako herritar orori.

4. Lehen sektorea sustatzea, oro har, eta nekazaritza ekologikoa, bereziki.

AYUNTAMIENTO DE ALTZAGA

*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentario, sin que se haya presentado reclamación ni observación alguna, se ha elevado a firme y definitivo el acuerdo inicial adoptado por el Pleno Municipal en sesión celebrada con fecha 27 de noviembre de 2018, aprobando el Reglamento de funcionamiento de las huertas «Herri baratza» de Altzaga. Por ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 reguladora del Régimen Local, se publica el texto íntegro conforme al siguiente tenor:

*Reglamento de funcionamiento de las huertas «Herri-Baratza» de Altzaga.*

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El ayuntamiento de Altzaga ha realizado convocatoria para incentivar el proyecto de huerta ecológica, habiéndose presentado 4 familias interesadas.

Junto con las personas interesadas, el ayuntamiento a través de auzolan, ha acordado acondicionar la parcela sita en la parte trasera de Apaiz-etxea, para destinarlo a huertas ecológicas.

Al realizar los trabajos de acondicionamiento el ayuntamiento procederá se encargará de realizar los trabajos de movimiento de tierra y provisión de maquinaria.

Los vecinos interesados deberán aportar la mano de obra, tirar los árboles, limpieza del terreno y marcar las parcelas de huerta.

El Ayuntamiento de Altzaga, a través de este programa de huertas pequeñas, pretende preparar unas 4-5 huertas a fin de que quienes asuman la explotación de las mismas, puedan destinar los productos obtenidos al consumo familiar.

El compromiso municipal pasa por facilitar el acceso al programa de todos los interesados y regular el reglamento de adjudicación de las huertas.

Con este programa se pretenden alcanzar los siguientes objetivos:

1. Ser espacio de encuentro para el desarrollo integral de la persona (transmisión de valores). Ofrecer las bases para una forma de vida saludable (alimentación equilibrada, ofrecer la posibilidad de producir los productos que cada uno quiera). Ofrecer en relación con la naturaleza la posibilidad de aprender y enseñar unos de otros y ofrecer posibilidades individuales de recuperar aprendizajes ya extinguidos o desaparecidos.

2. Fomentar el ocio activo.

3. Ampliar la oferta de actividades a todos los vecinos de Altzaga.

4. Promocionar el sector primario en general y la agricultura ecológica en particular.

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. Xedea.

Erregelamendu honen helburuak, Altzagako baratza sozia-  
len funtzionamendu arauak ezartzea eta horiek erabili eta ho-  
rietaz gozatzeko eskubideen baldintzak erregulatzea dira.

### 2. artikulua. Partzelaren jabetza.

Aipatutako Altzagako herri baratza hauek kokatuta dauden  
lursailak, Altzagako udalarenak dira, eta haren eskumena da  
horiek administratu, kudeatu eta zuzentzea.

Baratzen esparruak hamar partzelaraino antolatu ahal  
izango ditu, eskatzaileen arabera.

Ura bideratua izango da, hainbat mangera ipiniko dira bara-  
tzegileek ureztatzeke erabili ditzaten.

### 3. artikulua. Baratzen ezaugarriak.

Alkatearen ebazpen baten bidez eta beharrezkotzat edo bi-  
dezkotzat jotzen dituen gertaera eta gorabehera edo kausenga-  
tik, partzelak berriro antolatu eta aldaketak egiteko eskubidea  
gordetzen du Udalak, bai eta horien azalera aldatzeko ere. Kasu  
honetan kontzesiodunek ez dute izango eskubiderik kalte-ordai-  
nik jasotzeko. Kontzesiodunek ere ez dute izango eskubiderik  
kalte-ordainik jasotzeko (kontzesioko baratzengatik edo hor uz-  
tzen diren produktuengatik) esleitutako partzelek izaten dituz-  
ten aldaketengatik edo partzelak ixteagatik.

Udalak, partzela kopuru jakin bat erreserban gordeko du,  
zenbait jarduera garatzeko (prestakuntzakoak, hezkuntzakoak,  
esperimentuzkoak, eta abar).

### 4. artikulua. Baratzen adjudikazioa.

1. Baratza erabiltzeko, ezinbestekoa izango da adminis-  
trazio kontzesioa, erabilera pribatiboa baitakar berarekin.

2. Kontzesioaren titularrak baldintza hauek bete beharko  
dituzte:

- Altzaga udalerriko bizilagunak izatea.
- Altzagako baratzen antolaketaarako deituko den auzolan  
egunetan parte hartze aktiboa izatea.
- Jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo fisi-  
koak izango dira.
- Adjudikatzeko prozesuan titular bat baino ez dugu onar-  
tuko etxebizitzako.
- Herrian beste baratza baten ustiapeneko erabiltzailea den  
familia-unitate bateko kidea ez izatea.
- Altzagako Udalarekiko zerga-betebehar eta gainerako  
ordainketen jakitun izatea.

3. Baratze ekologikoen kontzesioa lortzeko interesa duten  
pertsonek eskabide bat aurkeztu beharko dute Udala Erregis-  
troan, horretarako finkatutako epearen barne eta eredu ofizia-  
lari jarraituz eta zehatzuz aisiialdirako baratz ekologikoetarako  
eskaera egiten duela.

Eskabidearekin bat aurkeztu beharko dira, normalizatutako  
ereduak exijitzen dituen dokumentuez gain, honako dokumen-  
tuak:

- a) NAN edo ordezeko agiri legalaren fotokopia.
- b) Ezarritako baldintzak betetzea egiaztatzen duten doku-  
mentuak edo zinpeko aitortpena.
- c) Udalak deituko duen auzolan saioetan partehartzeko  
konpromezua.

## DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1. Objeto.

El presente reglamento tiene por objeto establecer las nor-  
mas de funcionamiento de las huertas sociales de Alzaga, así  
como regular las condiciones de cesión del derecho de uso y  
disfrute de las mismas.

### Artículo 2. Propiedad de la parcela.

Tanto la parcela sobre la que se asienten las huertas de Al-  
zaga, como las propias huertas, son propiedad del Ayunta-  
miento de Alzaga, siendo competencia de éste su administra-  
ción, gestión y dirección.

En el recinto de huertas se podrán habilitar hasta 10 parce-  
las.

Se habilitará agua para lo que se instalaran mangueras  
para uso de los concesionarios de las huertas.

### Artículo 3. Características de las huertas.

El Ayuntamiento, mediante decreto de Alcaldía y ante posi-  
bles eventualidades y circunstancias o causas que considere  
oportunas y necesarias, se reserva el derecho a realizar futuros  
cambios en la reorganización y la distribución de las parcelas,  
así como a modificar su superficie. En este caso los concesio-  
narios no tendrán derecho a indemnización alguna. Tampoco  
tendrán los concesionarios derecho a recibir indemnización al-  
guna (por las huertas objeto de la concesión o por los productos  
que en las mismas se cosechen) por las modificaciones que su-  
fran las parcelas asignadas o por su clausura.

El Ayuntamiento se reserva la potestad de reservar un nú-  
mero determinado de parcelas para el desarrollo de diferentes  
actividades (formativas, educativas, experimentales, etc.).

### Artículo 4. La adjudicación de las huertas.

1. La utilización de las huertas, en cuanto implican un uso  
privativo, estará sujeta a concesión administrativa.

2. Los concesionarios deberá cumplir las siguientes condi-  
ciones:

- Ser vecinos del municipio de Alzaga.
- Participar activamente en los días de trabajo comunitario  
que se convocarán para la organización de las huertas de Alzaga.
- Ser persona natural o física con plena capacidad de obrar.
- En el proceso de adjudicación no se admitirá mas de un  
titular por vivienda.
- No ser ningún miembro de la unidad familiar usuario de  
otro huerto.
- Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributa-  
rias o de otra índole con el ayuntamiento de Alzaga.

3. Los interesados en la concesión de una huerta ecoló-  
gica deberán presentar la solicitud correspondiente en el regis-  
tro municipal, en el plazo establecido al efecto, con arreglo al  
modelo oficial indicando que realiza solicitud para la concesión  
de huertas ecológicas de ocio.

A la solicitud deberá acompañar además de los documentos  
que se exijan en el modelo normalizado la siguiente documen-  
tación:

- a) Fotocopia del DNI o documento que legalmente le sus-  
tituya.
- b) Documentos o declaración jurada de que cumple los re-  
quisitos establecidos.
- c) Compromiso de participar en las sesiones de auzolan  
que convoque el ayuntamiento.

Udalak ofizioz egiaztatuko du erroldatzea eta erresidentzia, arauhausterik eza eta Udalarekiko zergabetebehar guztien berri izan eta behar bezala betetzen dituela eskatzaileak.

Auzolan sasioen ondoren, baratza sailak antolatu eta ego-kitu ondoren, honela jokatu da:

Aurkezten diren eskatzaile guztien eskaerak aztertu ondoren, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda egingo da eta iragarkien panelean argitaratuko da, interesdunek bost laneguneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko. Epe hori amaitu ondoren, erreklamaziorik ez balego zerrenda behin betikoa joko da eta partzelen esleipenari buruzko alkate erabakia hartuko. Baldin eta erreklamazioak aurkeztuko balira dagokion erabakia hartuko da eta behin betiko zerrenda beste bost eguneko epean argitaratuko da.

Jarraian behin betiko partzela egokitu zaienei deituko zaie, bakoitzari egokitzen zaion partzela zozketa publiko bidez erabakitzeko.

Eskaintzen den partzela kopurua baino eskatzaile gehiago egon ezkerro, esleipena zozketa publiko bidez erabakiko da, horretarako data behar bezala iragarri. Zozketa egin ondoren, esleipenen eta erreserban geratzen direnen zerrenda argitara emango da, udaletxeko iragarki taulan ezarri.

Lagatako lizentziaren titulua «prekario» motatakoa izango da, eta Udalak, interes publikoko kausa justifikatuen bitartez, edozein unetan lizentzia kendu ahalko dio edozein erabiltzailerri, Udalak inolako kalte-ordainik emateko eskubiderik izan gabe.

Interes publikoko kausa justifikatu izan daitezke, «aisialdirako baratz ekologikoak» programarekin bateragarria edo ordezkatzailea den beste edozein udal programaren onarpena, edo Udalak edo beste edozein herri administraziok hiri edo azpiegituren garapenerako beste edozein plan onartzea, baldin eta zuzkidura publikorik ezarri beharko balitz aisialdirako baratz ekologikoen kokapen berean. Kasu horietan, aipatutako Planaren onarpenak gizarte intereseko edo erabilera publikoko aitortpen bat izango du, eskatzen diren lursailen erabilerarentzako tituluen balioa indargabetuko duena, eta emandako baimenaren zati baten edo erabateko galera ekar lezaketek, inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

#### 5. artikulua. Kontzesioaren ezaugarriak.

1. Baratzen kontzesioaren helburua da era pribatiboen horiek erabili eta horietaz gozatzeko eskubidea izatea, horiek bakarrik erabiltzekoa eta obligazioa izango dute Erregelamendu honetan xedatutakoa eta gainontzeko arauak betetzeko eta organo eskudunek hartutako akordioak betetzeko.

2. Partzelaren kontzesioa prekario izaerakoa eta urte baterako izango da, eta epe hori urtero luza daiteke.

3. Kontzesioak gehienez ere 6 urte iraungo du, hura bukatu baino lehen Erregelamendu honetan ezarritako iraungitze klausularen bat hautsi ezean.

Luzapenak erabakitzen hartuko dira aldeetako batek emakidaren edo izandako luzapenen amaiera epea baino hilabeteko aurrerapenarekin aurretiazko oharpenik egiten ez badu. Esleipendunak, lizentzia amaitu eta hilabeteko epera, baratza garbi utzi beharko du, hurrengo esleipendunak lantzeko beharrezko egokitasunez.

4. Udalak adjudikaziodunari baratzetarako lursaila uzten dio, erabili dezan eta gozatu dezan, eta antolatzen diren gizarte eremuko ekintza guztietan laguntzea, hala nola, ikasleei aholkuak emanez eta baratzeko generoen erakusketetan parte hartuz besteak beste.

El Ayuntamiento comprobará de oficio el empadronamiento y la residencia efectiva, la ausencia de infracciones cometidas y el cumplimiento de estar al corriente de las obligaciones tributarias o de otra índole para con el ayuntamiento.

Una vez realizadas las sesiones de auzolan, y organizadas y preparadas las parcelas de huerta, se actuará del siguiente modo:

Una vez examinadas todas las solicitudes presentadas se aprobará la lista provisional de admitidos y excluidos y se publicará en el tablón de anuncios, para que en el plazo de cinco días laborales los interesados puedan presentar reclamaciones. Finalizado dicho plazo si no hubiera reclamaciones dicha relación será definitiva y se adoptará la correspondiente resolución de adjudicación de parcela. Si hubiera reclamaciones se adoptará la resolución pertinente publicándose la lista definitiva por otros cinco días.

Seguidamente se procederá a citar a los definitivamente seleccionados a fin de realizar el correspondiente sorteo para decidir la parcela/huertas que corresponde a cada uno de los seleccionados.

Caso de que se produjeran más solicitudes que el número de parcelas disponibles, la adjudicación se realizará por sorteo público, mediante publicación de la fecha correspondiente. Una vez realizado el sorteo se publicará la lista de adjudicación y la lista de reserva definitiva, publicándose en el tablón de anuncios del ayuntamiento.

El título de la licencia concedida será «a precario» para el usuario, pudiendo el Ayuntamiento por causas justificadas de interés público revocar la licencia concedida en cualquier momento sin derecho a indemnización alguna por parte del Ayuntamiento.

Pueden ser causas justificadas de interés público, la aprobación de cualquier programa municipal que sustituya o sea incompatible con el programa de huertos ecológicos de ocio, o también la aprobación de cualquier Plan de Desarrollo urbanístico o de infraestructura por parte del Ayuntamiento o cualquiera otra Administración Pública, que conlleve la implantación de cualquier dotación pública sobre los terrenos destinados a huertos ecológicos de ocio. En estos casos la aprobación del citado Plan conllevará la declaración de utilidad pública o interés social, a efectos de dejar sin vigencia los títulos habilitantes para el uso de los terrenos demaniales, y pueden dar lugar a la pérdida total o parcial de la autorización concedida por licencia sin derecho a indemnización alguna.

#### Artículo 5. Características de la concesión.

1. El objeto de la concesión de las huertas es el derecho de uso y disfrute de las mismas e modo privativo, con carácter exclusivo y con la obligación de cumplir con lo dispuesto en el presente reglamento y con las demás normas y acuerdos adoptados por los órganos competentes.

2. La parcela se concederá por plazo de un año, que podrá ser prorrogado anualmente.

3. La concesión tendrá una duración máxima de 6 años salvo que con anterioridad a la expiración se incurriera en alguna de las cláusulas de extinción establecidas en el presente Reglamento.

Las prórrogas se entenderán acordadas si no mediara un preaviso de cualquiera de las partes con un mes de antelación a la finalización de la concesión o de sus sucesivas prórrogas. El adjudicatario deberá dejar, en el mes final del plazo de licencia, el huerto limpio y apto para ser cultivado por el siguiente adjudicatario.

4. El Ayuntamiento cede al adjudicatario la huerta para su uso y disfrute personal, a cambio solicita su colaboración en todas aquellas actividades de proyección hacia la sociedad que se organicen, tales como asesoramiento a escolares y exposiciones de productos de la huerta.

5. Udalak partzela adjudikaziodun bakar bati uzten dio, eta hori bera izango da arduraduna eta erabat debekaturik dago beste batekin eramatea, lagatzea edo errentan ematea guztiz edo zati batean.

6. Onartuko dugu partzela erabili eta mantentzea beste pertsona batzuek, alde zuzenetik justifikatutako eta Udalak baimendutako kasuetan, partzelako titularrak berak hala eskaturik.

Halaber, kontzesioaren titularitatea ezingo da eskualdatu, ez eta beste bati eskualdatu ere; kasu horietan automatikoki Udalari itzuliko zaio partzela.

7. Titularra hilez gero, kontzesioa iraungiko zaio. Udalak ikusiz gero adjudikazio aldian pertsona horrek zuzen eta egoki kudeatu duela baratza, baratza horren erabilera etxe bereko familiarrek bati eman diezaiotke, horren ildoko eskaeraren bat izanez gero, baina beti ere Udalak izango du onartze edo baztertze eskubidea.

#### 6. artikulua. Adjudikaziodunen eskubideak eta betebeharrak.

1. Baratza nekazaritzarako bakarrik erabiliko da, eta landatutakoa, nekazaritza ekologikoaren printzipioen arabera kudeatuko da. Hortaz, debekaturik dago herbizidak, pestizidak eta sintesiko ongarriak erabiltzea, bai eta hazi eta landare transgeniko erabilera ere.

2. Adjudikaziodunak ezingo du inbertsiorik egin bere kabuz. Lursailen ezin da inolako eraikuntza edo berrikuntzarik burutu udalaren baimenik gabe. Instalazioetakoa ez den beste ezer sartzerik ez dago, hara nola: Bidoirik, bainu-ontzirik, jarlekurik, kaxarik edo berotegirik. Ekipamendua denek erabiltzekoa da, hortaz, lana bukatutakoan, adjudikaziodunak txukun eta egoera onean utzi behar du dena. Hala behar denean, Udalak aldizkako ikuskatze lanak egin ahal izango ditu txabolan.

3. Adjudikaziodunak zuzen eta egoki erabili behar ditu instalazioak eta eskura jarritako materiala.

Tresnak edo ondasunak gaizki erabili eta kaltetu, hondatu edo galduz gero, konpondu egin beharko ditu.

4. Konpondu ezean, hasierako fidantzatik deskontatuko zaio zenbatekoa, eta hori nahikoa ez bada, diferentzia ordaindu beharko du. Gainera, kontzesioarekin jarraitzeko, adjudikaziodunak fidantza berri bat jarri beharko du.

5. Adjudikaziodunak obligazioa du udal langileen esanak errespetatzeko, ordena bermatu eta programa ondo dabilela ziurtatzeko.

6. Adjudikaziodunak obligazioa du baratzako lanekin lotutako jarduera guztiak egiteko. Hortaz, baratza erabiltzeko eskubidea galduko du, antzeman bezala bertan behera utzita duela, arrazoi justifikaturik gabe.

7. Altagako Udala, ez da esleipendunak edo beste norbaitek izan ditzakeen istripuen erantzule izango, ezta lur-zatiaren erabilera dela eta, hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteenik ere.

#### 7. artikulua. Udalaren betebeharrak.

Udalak, baratzekin batera, konpromisoa hartzen du urtero gutxienez bilera bat burutzeko.

#### 8. artikulua. Fidantza.

Adjudikaziodunak hasierako fidantza bat ordainduko du. Haren zenbatekoa 100 €koa izango da. Adjudikaziodunak eragin ditzakeen kalteak edo ez ordainak fidatzeko izango da eta adjudikaziodunak gaur edo bihar baratza uztea erabakitzen badu, orduan jaso ahal izango du, aurretik ipinitako fidantza hori, arau hausterik izan ez badu.

5. El Ayuntamiento cede la huerta a un único adjudicatario, el cual deberá regentarla personalmente, quedando terminantemente prohibido compartirla, cederla o subarrendarla total o parcialmente.

6. Únicamente se permitirá el uso y mantenimiento de la parcela por otras personas en casos previamente justificados y autorizados por el Ayuntamiento a solicitud del propio titular de la parcela.

Asimismo, la titularidad de la concesión no podrá ser objeto de traspaso ni transmisión a un tercero, debiendo revertir automáticamente al Ayuntamiento.

7. El fallecimiento del titular dará lugar a la extinción de la concesión sin ningún derecho para sus sucesores. Si por parte del Ayuntamiento se observa que durante el tiempo de adjudicación dicha persona ha gestionado correctamente la huerta, se podrá conceder el uso y disfrute de dicha huerta a la viuda/viudo en el caso de que hubiera alguna petición al respecto, eso sí, siempre con la aprobación del Ayuntamiento.

#### Artículo 6. Derechos y obligaciones de los adjudicatarios.

1. La huerta tendrá un uso exclusivamente agrícola, y será cultivada según los principios de la agricultura ecológica. Queda, por tanto, prohibido el uso de herbicidas, pesticidas y abonos de síntesis, así como de semillas y plantas transgénicas.

2. El adjudicatario no podrá hacer inversiones a iniciativa personal. No se admite la introducción de elementos ajenos a las instalaciones, tales como: Bidones, bañeras, bancos, cajas e invernaderos. El equipamiento es de uso común, por tanto, una vez acabado el trabajo, el adjudicatario está obligado a dejarlo en perfecto orden y en buenas condiciones. En situaciones que así lo requieran el Ayuntamiento se reserva el derecho de hacer inspecciones en la txabola.

3. Será obligación del adjudicatario hacer uso correcto de las instalaciones y del material disponible.

Deberá reparar o reponer aquellos bienes o utensilios que resulten dañados, destruidos o extraviados por el uso inadecuado de los mismos.

4. En caso de no proceder a su reparación, el importe se descontará de la fianza inicial, y si ésta no es suficiente deberá abonar la diferencia. Además para seguir con la concesión el adjudicatario deberá restituir una nueva fianza.

5. El adjudicatario tiene la obligación de respetar las indicaciones del personal municipal para garantizar el orden y asegurar el buen funcionamiento del programa.

6. El adjudicatario tiene la obligación de realizar puntualmente todas las actividades relacionadas con el cultivo de la huerta. Por tanto, perderá su derecho a usarla si se detecta un abandono de la misma por causas no justificadas.

7. El Ayuntamiento de Altzaga no será responsable de los accidentes que pudieran sufrir los adjudicatarios o cualquier otro, así como tampoco de los daños que se pudieran producir a terceros por el uso de las parcelas.

#### Artículo 7. Obligaciones del Ayuntamiento.

El Ayuntamiento, junto con los adjudicatarios, se compromete a la celebración de al menos una reunión anual.

#### Artículo 8. Fianza.

El adjudicatario deberá abonar una fianza inicial por importe de 100 €. Esta fianza representa el compromiso personal del adjudicatario en el cumplimiento de sus deberes y obligaciones. La fianza será devuelta al adjudicatario en el momento en el que éste declare su voluntad de no seguir con la huerta, siempre que no se haya producido infracción alguna.

**9. artikulua. Prezioa.**

Adjudikaziodunak urtean 50 eurotako kuota ordaindu behar du.

**10. artikulua. Funtzionamendu arauak.**

1. Udalak ez du beregain hartuko ardurarik baratzak eta produktuak kaltetu, ostu edo hondatzeagatik. Zaintzeko ardurarik ere ez du beregain hartuko.

2. Baratzetan sasoiko landareak lantzeko baimena baino ez dago; hortaz, ezin da jarri ez berotegirik (negutegirik), ez eta ez urte anitzeko espezierik, adibidez, arbolarik eta zuhaixkarik. Eremu berean salbuesenez Herri Eskolak negutegia eduki ahal izango du.

3. Debekaturik geratzen da baratza horietan animaliak edukitzea (txakurrak, katuak, e.a.).

4. Baratzetik lortzen diren produktuak familian kontsumitzeko dira; hortaz, horiek ezin dira saldu. Salbuespena da trukea.

5. Baratzetako esparruan ezin da eduki etxeko animaliarik.

6. Baratzen esparru hau, topaleku bat izatea nahi dugu, bat egiteko eta pertsonen arteko harremanak egiteko leku bat; horregatik, adjudikazioduna joan daiteke baratzera familiako batekin edo lagun batekin.

Ezin da eraldatu proiektuaren zentzu integratzailea; hortaz, ezingo da erabili instalazioa barbakoak eta senideen arteko ospakizunak egiteko.

Beraz ezingo da inolako surik egin, ez eta sastrakak erretze-ko ere.

7. Proiektua harmoniaz garatu dadin, adjudikaziodun guztien konpromisoa behar da. Hortaz, Udalak eta proiektuak, partehartzaileetako bakoitzari, gainerakoekin eta ingurunearekin errespetuz jokatzeko eskatzen dio. Pertsonen arteko bizikidetzaren oinarritzko arauak betetzea ezin bestekoa da.

8. Baratzen esparrura, bizikletaz edo oinez joan behar da.

9. Baratzeen erabiltzaileen erantzukizuna izango da lur-saila garbi mantentzea eta horretarako hondakin organikoak konpostategian utzi beharko dituzte bere desegiterako. Gainontzeko hondakinak udalak horretarako ezarritako arautegia betetzeko utzi beharko dira.

10. Udalak erabiltzaile guztien artean kontsumitutako uraren likidazioa egiteko ahalmena izango du.

**11. artikulua. Arau-haustek eta santzioak.**

Araudi honetan jasota datorrena urratzen dituzten egintzek edo egiten ez direnek sortuko dute administrazio erantzukizuna, baina kontuan hartuko da erori daitekeen bide penalean, zibillean edo bestelakorik eskatu daitekeena.

Kontzesionarioak egindako hutsegiteak honela santzionatuko dira:

– Hutsegite arinak santzionatuko dira 20tik 50 €ko isunaz. Kontzesioa iraungi/hautsiko da bost (5) hutsegite arin eginez gero urte batean.

– Hutsegite larriak santzionatuko dira 51tik 150 €ko isunaz. Kontzesioa iraungi/hautsiko da hiru (3) hutsegite larri eginez gero urte batean.

– Hutsegite oso larriak santzionatuko dira 151tik 300 €ko isunaz eta kontzesioa iraungi/hautsiko da.

– Baratzako produktuen salmenta.

Santzioen zenbatekoa urtero eguneratuko du Udalak, aurreko urteko kontsumorako prezioen indizeen aldaketaren arabera.

**Artículo 9. Precio.**

El adjudicatario debe abonar una cuota anual de 50 euros.

**Artículo 10. Normas de funcionamiento.**

1. El Ayuntamiento no asumirá responsabilidad por daños, sustracciones o deterioros de las huertas y los productos. Tampoco asumirá responsabilidad de custodia.

2. En las huertas solamente está autorizado el cultivo de plantas de temporada, por tanto, no están permitidos ni los invernaderos ni las especies plurianuales, como los árboles y los arbustos. Como excepción se permite en la zona la instalación de un invernadero por parte de la Herri Eskola.

3. Queda prohibido la tenencia de todo tipo de animales en dichas huertas (perros, gatos etc.).

4. Los productos que se obtengan de la huerta están destinados al consumo familiar, por tanto su venta no está autorizada. Se exceptúa el trueque.

5. No se permite la presencia de animales domésticos sueltos en el recinto de huertas.

6. El recinto de huertas pretende ser un lugar para el encuentro, la integración y las relaciones personales, por eso, el adjudicatario puede acudir a la huerta acompañado de algún familiar o amigo.

No está permitido adulterar el sentido integrador del proyecto, monopolizando las instalaciones con fines exclusivamente personales como la celebración de barbacoas y encuentros familiares.

Por tanto queda prohibido hacer fuego, incluso para la quema de rastrojos.

7. Para que este proyecto se desarrolle con armonía, es necesario el compromiso personal de todos los adjudicatarios. Por tanto, se exige a cada uno de ellos que muestre una actitud de respeto hacia los demás y hacia el entorno, que se materialice en el cumplimiento de las normas básicas de convivencia entre las personas.

8. Al recinto de huertas se accederá en bicicleta o andando.

9. Será responsabilidad del adjudicatario de la huerta mantenerla limpia y depositar los residuos orgánicos en la compostadora para su eliminación. Todos los demás residuos deberán ser depositados conforme al calendario aprobado por el ayuntamiento.

10. El Ayuntamiento procederá a realizar las correspondientes liquidaciones de agua entre todos los usuarios.

**Artículo 11. Infracciones y sanciones.**

Las acciones u omisiones que infrinjan lo prevenido en la presente Normativa generarán responsabilidad administrativa, sin perjuicio de la exigible en vía penal, civil o de otro orden en que puedan incurrir.

Las faltas cometidas por los concesionarios se sancionarán de la siguiente forma:

– Las faltas leves serán sancionadas con multa de 20 a 50 €. Será causa de resolución de la concesión la comisión de cinco (5) faltas leves durante un año.

– Las faltas graves serán sancionadas con multa de 51 a 150 €. Será causa de resolución de la concesión la comisión de tres (3) faltas graves durante un año.

– Las faltas muy graves serán sancionadas con multa de 151 a 300 € y la resolución de la concesión.

– Venta de productos de la huerta.

El importe de las sanciones será actualizada anualmente por el Ayuntamiento en base a la variación de los índices de precios al consumo del año natural anterior.

Santzioak ezartzea eta arau-haulari eskatzea lehenago egorara itzultzea bateragarriak izango dira, bai eta sortutako kalte eta galerak kalte-ordaintzea ere.

A. Hutsegite arinak izango dira:

– Altzagan erroldan egoteari uztea eta baja ez eskatzea.

– Ez egitea esleitutako partzelaren mantentze lanak, ez eta hara joateko bideak ere, eta edozein itxitura egitea partzelan.

– Ezin da baratzen eremuan autoaz ibili.

– Nekazaritza ekologikoaren printzipioak ez betetzea.

– Instalaziokoak ez diren elementuak sartzeta.

– Ekipamendua, lanabesak eta denon instalazioak behar ez bezala erabiltzea.

– Udal langileen esanak ez errespetatzea.

B. Hutsegite larriak izango dira:

– Udal ondasunak lapurtzea edo ortuko denen instalazioetan kalteak edo hondamendiak sortzea, balioa ez denean 500 € baino handiagoa.

– Edozein arau-hauste arin errepikatzea.

C. Hutsegite oso larriak izango dira:

– Landare psikotropikoak, cannabisa edo antzekoak landatzeko lanak egitea.

– Udal ondasunak lapurtzea edo baratzeko denen instalazioetan kalteak edo hondamendiak sortzea, balioa denean 500 € baino handiagoa.

– Epearen barruan ez uztea lagatako partzela, Udalak erabakiz gero kontzesioa ezestea.

– Baratzaren erabilera transferitzea edo lagatzea.

– Edozein arau-hauste larri errepikatzea.

12. artikulua. Santzionatzeko prozedura.

Administrazioak erantzukizuna eskatu dakioko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean, azaroaren 26koa, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Herri Administrazioen zehatzeko ahalaren 2/1998 Legean, otsailaren 20koa, ezarritako arauen, printzipioen eta prozeduraren arabera.

13. artikulua. Kontzesioa betetzea eta iraungitzea.

1. Hauengatik iraungiko dira kontzesioak:

– Urte batean 5 arau-hauste arin edo 3 arau-hauste larri edo arau-hauste oso larria egitea.

– Kontzesioaren oinarriko baldintzetako bat galtzeagatik.

– Kontzesioduna hil izana edo sortutako ezintasuna.

– Titularrak berariaz uko egitea kontzesioari.

– Kontzesioaren urteko tasa ez ordaintzeagatik.

– Kontzesioa erreskatatzea, interes publikoko arrazoiengatik.

2. A) eta B) ataletan ezarritako arrazoiengatik kontzesioa iraungiz gero hasierako fidantza galduko du eta jaso gabeko barazkiei buruzko eskubideak galduko ditu, eta horiek partzelaren jabetza berriarentzat izango dira, ez du izango ezelako kalte-ordainik.

La imposición de sanciones será compatible con la exigencia al infractor de la reposición de la situación alterada por el mismo a su estado originario, así como con la indemnización por los daños y perjuicios causados.

A. Tendrán la consideración de falta leve:

– Dejar de estar empadronado en Alzaga y no solicitar la baja.

– No proceder al mantenimiento de la parcela asignada, de los accesos a ésta, así como la ejecución de cualquier cierre en la parcela.

– Queda prohibido el uso de automóviles en el recinto de las huertas.

– Incumplir los principios de la agricultura ecológica.

– La introducción de elementos ajenos a las instalaciones.

– Mal uso del equipamiento, aperos e instalaciones comunes.

– No respetar las indicaciones del personal municipal.

B. Tendrán la consideración de falta grave:

– Sustraer bienes municipales o causar daños o desperfectos en las instalaciones comunes de las huertas cuyo valor no supere los 500 €.

– La reiteración de cualquier falta leve.

C. Tendrán la consideración de falta muy grave.

– Establecimiento o realización de labores de cultivo de plantas psicotrópicas, cannabis o similares.

– Sustraer bienes municipales o causar daños o desperfectos en las instalaciones comunes de las huertas cuyo valor supere los 500 €.

– No desalojar en plazo la parcela cedida, caso de acordarse por el Ayuntamiento la revocación de la concesión.

– Transferir o ceder el uso de la huerta.

– La reiteración de cualquier infracción grave.

Artículo 12. Procedimiento sancionador.

La responsabilidad administrativa será exigible de conformidad con las normas y los principios y el procedimiento establecidos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común y la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 13. Cumplimiento y extinción de la concesión.

1. Serán causas de rescisión de las concesiones.

– La comisión de 5 infracciones leves o 3 infracciones graves o 1 infracción muy grave durante un año.

– Por pérdida de alguno de los requisitos esenciales de la concesión.

– La muerte o incapacidad sobrevenida del concesionario.

– La renuncia expresa del titular.

– Por falta de abono de la tasa anual de la concesión.

– El rescate de la concesión por razones de interés público.

2. En caso de extinción de la concesión por las causas establecidas en los apartados A) y B), el adjudicatario perderá la fianza inicial y los derechos sobre los productos hortícolas no recogidos, quedando los mismos a beneficio de la propiedad de la parcela, sin que ello pueda exigir indemnización alguna.

*14. artikulua. Azken xedapena.*

Erregelamendu hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost egunera, eta indarrean egongo da Udalak, pilatutako esperientziaren arabera, aldatu edo derogatu arte.

Altzaga, 2019ko otsailaren 15a.—Alkatea. (1124)

*Artículo 14. Disposición final.*

El presente Reglamento entrará en vigor a los quince días de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y tendrá vigencia hasta que el Ayuntamiento, de acuerdo con la experiencia acumulada, acuerde su modificación o derogación.

Altzaga, a 15 de febrero de 2019.—El alcalde. (1124)